

# GOGORATZEN DUZU... AZTERTU ETXEAN?

2020 urteko COVIDaren krisialdian, gure bizimodua zentzu guztietan egokitu behar izan genuen, eta, jakina, *Aztertu Programa* ez zen salbuespena izan.

Udaberri hartan, **jakinminaren** eta **ingurumen-hezkuntzaren** espiritua bizirik mantentzeko asmoz sortu zen AZTERTU ETXEAN, ikasteko, kontzientzia hartzeko eta, batez ere, ondo pasatzeko jokoak.

Gauza negatibo guztiak atzean utzita, pozten gaitu **AZTERTU ETXEAN 2. EDIZIOA** abian dela jakinarazteak.

## JOKATU NAHI? AUKERATU ASTEA



Nola jokatzeko da?  
Nori zuzenduta dago?  
+INFO 2. orrialdean

Edozein momentuan jokatu dezakezu,  
ez du axola orain arte jokatu ez izana.

1 APIRILAK 29 - MAIATZAK 5

2 MAIATZAK 6-12

3 MAIATZAK 13-19

4 MAIATZAK 20-26

5 MAIATZAK 27 - EKAINAK 2

6 EKAINAK 3-9

7 EKAINAK 10-16

8 EKAINAK 17-23

**Galdetegiak** dagokien astean mantenduko dira erabilgarri,  
igandeko 23:59ak arte.



## NOLA JOKATZEN DA?

Aztertu programan jorratutako gaietarako buruzko **QUIZ** bat da (GoogleForms bidez): Euskadiko natura-ondarea, ekosistemen zaintza, iraunkortasunarekin eta ingurumenaren babesarekin lotutako ohiturak, eta abar.




**Ez zara erregistratu behar.** Egin behar den gauza bakarra eskatutako datuak betetzea da, jokatu aurretik: **izena (edo nick)** eta **posta elektronikoa** (jokoari buruzko informazioa partekatzeko erabiliko duguna).

*\*\*Ez da derrigorrezkoa astero parte hartzea, baina horretara animatzen zaituztegu.*

## NORK PARTE HAR DEZAKE?

**Ondo pasatzeko** jokoa da, momentu **dibertigarri** bat izateko, gure ingurunearen eta naturari bu bu **ikasteko**. Bada **hezkuntza-tresna** gisa erabiltzen duena ere (erabilera askea baita). Horregatik, **nahi duen orok** har dezake parte. Adina eta dedikazioa ez dira axola.

*Adin gomendatua: 12 urtetik aurrera.*



## ORDUAN... LEHIAKETA BAT AL DA?

**EZ, ez da lehiaketa bat**, ez baita asmo horrekin sortu. Baina bai, sailkapen bat egongo da, parte-hartzea sustatzeko helburu bakarrarekin.

Aztertu programaren sari-banaketan **aipamen berezia** izango dute sailkapenaren lehenengo **hiru pertsonak**. Era berean, **laugarren saritu bat** egongo da, aste batean (behintzat) parte-hartu dutenen artean zozketaren bitartez hautatua izango dena.

## ZALANTZAK ETA GALDERAK

**Aztertu Etxean** ekimenaren inguruko edozein kontutarako, Aztertu Programaren lantaldearekin jar zaitezke harremanetan: [aztertu@euskadi.eus](mailto:aztertu@euskadi.eus) / Tel: **747 42 99 33**

